

ARRAIN-HAZKUNTZAKO EKOIZPEN AKUIKOLA EKOLOGIKOAREN ZIURTAPENA NNPEKekin LORTZEKO ESKULIBURUA

Dokumentu honen xedea da arrain-hazkuntzako ekoizlearen ziurtagiria lortzeko jarraitu beharreko prozesuaren eta oinarriko betebeharren berri ematea. Informazioa osatzeko, ekoizpen ekologikoaren araudia duzu eskura gure webgunean: www.cpaen.org.

Soil-soilik kontrolpean diren eta indarrean den ziurtagiria duten nekazaritza eta elikadura ekoizpenek erabiltzen ahalko dituzte NNPEK kontseiluaren adostasun markak, bai eta “ekologikoa”, “biologikoa”, “organikoa” termino babestuek edo haien laburdurak ere.

NNPEK kontseiluak honako Eskuliburu hauek ditu eskura ziurtatu daitekeen jarduera bakoitzari buruzko informazioa emateko (gorriz, Eskuliburu hau bera da):

JARDUERAK	INFORMAZIO ESKULIBURUAK
Ekoizpena (ekoizpenak biltegiturik edo ez, barne dira ekoizpen propioak eraldatu gabeko lanak).	
“Azpijarduera”: Begetala.	Ekoizpen Begetala (MAN001)
“Azpijarduera”: Animaliak (erlezaintza barne).	Abeltzaintza Ekoizpena: Ugaztunak (MAN002); Abeltzaintza Ekoizpena: Erlezaintza (MAN003); Abeltzaintza Ekoizpena: Hegaztiak (MAN008)
“Azpijarduera”: Akiukola.	Abeltzaintza Ekoizpen Akiukola (MAN004);
Elaborazioa edo Prestaketa (biltegiturik edo ez, eraldakuntza da barne, bai eta bestelako lanak ere, hala nola hiltzea, ontziratzea, etiketatzea).	Elaborazioa (MAN005)
Inportazioa (Europar Batasuneko herrialdeetatik kanpo, biltegiturik edo ez).	Inportazioa (MAN007)
Banaketa/Merkaturatzea (produktua biltegiturik edo ez, barne dira produktuari lotutako transakzio ekonomikorik gabeko “merkaturatze” jarduerak)	Banaketa/Merkaturatzea (MAN006)

ALDERDI OROKORRAK

Abeltzaintza ekoizpen ekologikoak animalien ongizatea eta gaitzen prebentzioa ditu oinarri, dena egokiro gobernatuz (barne dago animaliei elikadura ona ematea kalitatezko pentsuen bidez, elikadura orekatua, estresik ez eragitea, maneiatze-prozeduretatik eratorritako kalte fisikoak eragozte, elikadura gaitzgarriak eragozte, populazio dentsitate egokiak mantentzea, bai eta instalazio akuikolen higie eta osasun baldintzak ere).

Arrazak edo leinuak aukeratzean, kontuan hartu behar da animalien gaitasuna ingurune baldintzetara egokitzeko, eta haien bizkortasuna eta gaitzei aurre egiteko erresistentzia ere. Tokian jatorrizko espezieak erabiliko dira eta haien ugalketak xede izan beharko ditu hazkuntza baldintzetara egokituta dauden leinuak sortzea, osasun ona izatea eta elikadura baliabideen erabilera ona ahalbidetzea. Basa populazioei kalte garrantzitsurik eragin gabe hazten ahal diren espezieak aukeratu dira.

Animaliei behatzeak eta ur afluenten eta efluenten kalitatea behar bezalako maiztasunez kontrolatzeak aukera emanen dute arriskuak, gaitz eta gaixotasun sintomak identifikatzeko, eta arrakasta aukerak handituko dituzte, horiek eragozteko eta ahalik eta gehien murrizteko.

Egokia denean, kontsumitu ez den arrainendako pentsua, gorozkiak eta animalia hilak azkar ezabatu beharko dira, ingurumenean kalte garrantzitsu oro eragozteko uraren kalitate mailari dagokionez, gaixotasun arriskuak ahalik eta gehien murrizteko, eta intsektuak eta karraskariak ez erakartzeko.

NNPEKek ez du aholkularitza tekniko egiten, ekoizpena kontrolatzeko eta ziurtatzeko ardura duen Kontrol Agintaritzaren baita.

Ez da zilegi erabiltzea genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), ezta GEOetatik edo haien bidez lortutako produktuak ere.

Arauetan edo ziurtapen baldintzetan aldaketak direnean, NNPEKek jarriko ditu zure eskura www.cpaen.org webaren bidez eta, halaber, araudiaren bertsio finkatua eguneratuko du. Honako esteka honetan ikusten ahalko dituzu aldaketak eta bertsio eguneratuak: <https://www.cpaen.org/es/normativa/reglamentos>.

Zure ustiatzean gertatzen diren aldaketa guztiak jakinarazi beharko dizkiozu NNPEK erakundeari, eta zure ekoizpen-unitateen deskribapena eguneratu, behar den bakoitzean (lursail berriei alta ematea, lursail baxa ematea, ekoizpenak biltegitratzeko instalazioak, etab.).

Prebentzio eta ardura neurriak hartu beharko dituzu arauk ezarritakoa betetzen dela bermatzeko eta baimendu gabeko produktu edo substantziekin izan litezkeen kutsadura arriskuak murrizteko.

Ematen dizkizun zerbitzuengatik urteko tasetan ezarritako zenbatekoak ordaindu beharko dizkiozu NNPEK erakundeari.

Kontrolak egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia jarri beharko duzu NNPEKen eskura eta, era berean, zure ustiatze giko elementu guztietarako sarbidea eman beharko diezu auditoreei, lursailak, instalazioak eta beste ikuska ditzaten.

Kontrolak egiteko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio guztia jarri beharko duzu NNPEK erakundearen eskura eta, era berean, zure ustiatze giko elementu guztietarako sarbidea eman beharko diezu auditoreei.

Sumatuz gero ekoiztutako edo jasotako produktu bat ez datorrela bat ekoizpen ekologikorako araudiarekin, kasuan kasuko produktua bereizi eta identifikatu beharko duzu, eta susmoa frogatu badaiteke, ez duzu produktu hori eko gisa (edo konbertsio gisa) merkaturatuko eta erabiliko, salbu susmoa baztertzen ahal baduzu; nolahi ere, susmoa baztertzerik ez baduzu, NNPEK kontseiluari jakinarazi beharko diozu.

ALDI BEREKO EKOIZPEN EKOLOGIKOA ETA EZ-EKOLOGIKOA

Ustiatze giko ekologikoak izan behar dira, espezie jakin bati dagokionez. Hala ere, espezie berberak egoten ahalko dira, baldin eta ekoizpen-instalazioen artean bereizketa egokia badago. Bereizketa egokiari begira, ura banatzeko sistema independentea izan beharko da.

KONBERTSIO ALDIA

Produktu akuikolak ekologiko gisa merkaturatu ahal izateko, animaliek eta instalazioek konbertsio aldia pasatu beharko dute. Honako hau:

- 2 urtekoa, hustu, garbitu eta desinfektatu ez daitezkeen instalazioetarako.
- Urtebetekoa, urez/animaliaz hustu diren instalazioetarako.
- 6 hilabetekoa, hustu, garbitu eta desinfektatu diren instalazioetarako.
- 3 hilabetekoa, ur irekietako instalazioetarako.

Konbertsio aldia zure jarduera jakinarazi eta ziurtapen eskaera egiten duzun unetik aurrera hasiko da zenbatzen; ez lehenago.

Ez da zilegi produktu akuikolak “konbertsioan diren” produktu gisa merkaturatzea.

ARRAIN-HAZTEGIA

Kutsagarriek nahiz ekoizpen ekologikoan baimendu gabeko produktu edo substantziek kutsatuko ez duten lekuan kokatu beharko da.

Ingurumeneko ebaluazio bat egin behar zaio, operadore berri orotarako, ekoizpen-unitatearekiko proportzionala, urtean 20 tona baino gehiago ekoiztuko baditu produktu akuikoletan. Ebaluazioak ekoizpen-unitatearen eta aldameneko ingurunearen baldintzak egiaztatzeko aukera eman beharko du, bai eta haren funtzionamenduaren ziur aski izanen dituen efektuak ere. Ebaluazioaren edukia EB/211/92 Zuzentarauaren IV. Eranskinean oinarrituko da.

Ekoizpen-unitatearekin proportzionala den kudeaketa-plan jasangarri bat izan beharko du. Kudeaketa-planak jardueraren ingurumen-efektuak zehaztu beharko ditu, bai eta ingurunearen gaineko eragin kaltegarriak ahalik eta gehien murrizteko neurriak ere; halaber, harraparien kontra hartzen diren defentsa- eta prebentzio-neurrien erregistroa ekarriko du, bai eta hondakinak murrizteko egutegi bat ere, jarduera hastean abian jarriko dena.

Ahal den neurrian, hondar-beroaren erabilera iturri berriztagarrien energiara mugatuko da.

Arrain-haztegiatako urmaelek, tangek eta ubideek iragazpen naturaleko ohantzeak, dekantazio-urmaelek, iragazki biologikoak edo iragazki mekanikoak izanen dituzte hondar-mantenugaiak biltzeko, edo bestela, algak, animaliak edo biak (bibalbioak eta algak) erabiliko dituzte efluentearen kalitatea hobetzen laguntzeko. Ur gezako arrainen kasuan, hondoak ahalik eta antzik handiena izanen du baldintza naturalekin (karparen eta antzeko espezieen kasuan, hondoak lur naturalez osatua egonen da).

Espezieen beharrei eta kokaleku geografikoen ezaugarriei erantzuteko moduko tenperatura eta argitasun baldintzak ziurtatu beharko ditu.

Euste-sistema urtarrak izan beharko ditu, behar bezalako isuri eta parametro fisiko-kimikoen mailak emateko, dela animalien osasuna eta ongizatea babesteko, dela haien jokamoldeari datxekien beharrei erantzuteko. Behar bezala diseinatu, kokatu eta kudeatu beharko dira, ihes-gorabeherarik izateko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.

Debeku dira birzirkulazio bidezko ekoizpen-instalazio itxiak, salbu haztegiak eta mintegiak edota pentsu ekologikoetan erabiltzen diren espezieak ekoizteko ez bada.

Aukera eman beharko du sarrerako eta irteerako uraren isuri maila eta kalitatea kontrolatzeko, kalitate oneko ura mantenduz, behar bezainbesteko oxigenoarekin eta metabolito maila apalekin.

Perimetroaren % 10ek, gutxienez, landaretza naturala izanen du.

ANIMALIEN JATORRIA

Ustiategi ekologikoetan sortu eta hazi beharko dira.

Animalia ez-ekologikoak sartzen ahalko dira (basa animalia harrapatuak edo akuikultura ez-ekologikokoak) ugalketarako edo ondare genetikoa hobetzeko (azken kasu horretan, baimenarekin), betiere akuikultura

ekologikoko animaliarik eskura ez badago. Aipatu animaliak ekologikoki kudeatuko dira 3 hilabetez gutxienez, ugalketarako erabili ahal izan baino lehen.

Ondotik animalia horiek hazte aldera, eta akuikultura ekologikoko ale gazterik eskura ez dagoenean, ustiatégian basa animalia gazteak sartzen ahalko dira, betiere larbak edo gazteak berez etortzen badira urmaelak, itxiturak edo euste-sistemak betetzean.

Ondotik animalia horiek hazte aldera, eta akuikultura ekologikoko ale gazterik eskura ez dagoenean, ustiatégian sartzen ahalko dira (Estatu kideak baimena emanez) 2021eko urtarrilaren 1era arte Europar Batasunean ekologiko gisa garatu ez ziren espezieen gazte ez-ekologikoak. Azken kasu horretan, gutxienez ekoizpen-zikloaren iraupenaren azken bi herenak kudeaketa ekologikoan eginen da, eta ustiatégian sartu diren akuikultura ez-ekologikoko gazteen gehieneko ehunekoa % 50 izanen da.

POPULAZIO DENTSITATEAK ETA EUSTE-SISTEMAK

Espezie bakoitzarentzako populazio dentsitateak, euste-sistemak eta berariazko ekoizpen-sistemak EB 2020/464 Erregelamenduaren II. Eranskinean deskribatutako baldintzak eta murrizketak hartu beharko dituzte kontuan.

ELIKADURA:

EB 2021/1165 Erregelamenduaren II. Eranskineko zerrendan agertzen diren produktuak eta substantziak erabiltzen ahalko dira.

Animalia haragijaleen elikadurari dagokionez:

- Lehentasan hauetan oinarritu beharko da:
 - o Akuikulturatik datozen pentsu ekologikoak.
 - o Akuikultura ekologikoko hondakinetatik datozen arrain-irina eta arrain-olioa.
 - o Arrantzategi jasangarrietan giza kontsumorako harrapatutako arrain, krustazeo edo molusku hondakinetatik datozen arrain-irina, arrain-olioa eta osagaiak.
 - o Landare- edo animalia-jatorriko lehengai ekologikoak.
 - o Arrainetatik, krustazeoetatik edo molusku osoetatik eratorritako pentsuak, jasangarritasuna ziurtatua duten arrantzategietan harrapatutakoak.

JARDUNBIDE BAIMENDUAK ETA EZ-BAIMENDUAK

Honako jardunbide hauek ez dira zilegi:

- Hormonen eta hormonen deribatuen erabilera.
- Hazkunde-faktoreen edo aminoazido sintetikoen erabilera.
- Poliploidia, hibridazio artifiziala edo klonazioa erabiltzea.
- Ablazio pedunkulatu sinplea eta antzeko jardunbideak, hala nola lotura, ebakidura eta zanpaketa.
- Sintesi kimikoko albaitaritzak sendagai alopatikoak edo antibiotikoak erabiltzea prebentziozko tratamenduetan.
- Hazkundera edo ekoizpena sustatzeko substantzia artifizialen erabilera.
- Garraiatu aurretik eta garraioan zehar lasaigarri alopatikoak erabiltzea.
- Arrainak berehala konortetik gabe eta minarekiko sentiberatasunik gabe gelditzea eragiten ez duten hilketa tekniken erabilera.

Honako jardunbide hauek dira zilegi:

- Ura berotzeko edo hozteko sistema artifizialen erabilera baina haztegiatan eta mintegiatan besterik ez.
- Zulaketa naturaleko uraren erabilera ekoizpen fase guztietan ura berotzeko edo hozteko.
- Argi artifizialaren erabilera, baldin eta:
 - o Eguneko argi naturalaren luzapenak ez badu gainditzen hazten diren animalien premia etologikoak, baldintza geografikoak eta osasun orokorra errespetatzen dituen gehieneko muga; gehieneko muga hori ezin izan da izan 14 orduetik gorakoa egunean, ugalketarako ez bada.
 - o Trantsizio-orduan argi-intentsitatearen bat-bateko aldaketak saihesten badira, intentsitate erregulagarriko argiak edo hondo-argiak erabiliz.
- Aireztapena, animalien ongizatea eta osasuna bermatzeko, baldin eta ahal dela aireztagailu mekanikoek iturri berriztagarrietako energiarekin funtzionatzen badute.
- Oxigenoaren erabilera baina bakarrik osasunarekin, ongizatearekin eta ekoizpen- edo garraio-aldi kritikoekin lotutako erabileretarako; zehazki honako kasu hauetan:
 - o Temperatura ohi ez bezala igo, presio atmosferikoa ohi ez bezala jaitsi edo ura ustekabeen kutsatzen den salbuespenezko kasuetan.
 - o Populazioak kudeatzeko noizbehinkako prozedurak, hala nola laginketa eta sailkapena.
 - o Ustiatzeko populazioen biziraupena bermatzeko.
- Argi ultramorea eta ozonoa gaixotasunen prebentziorako erabiltzen ahalko dira baina haztegiatan eta mintegiatan besterik ez.

OSASUNA ETA GARBIKETA

Plan bat eduki beharko da animalien osasuna kudeatzeko . Plan horretan, biosegurtasuneko eta gaixotasunen prebentzioko jardunbideak zehaztuko dira, baita osasun-aholkularitzako akordio idatzi bat ere, ekoizpen-unitatearekiko proportzionala, akuikulturako animalien osasunaren arloko zerbitzu kualifikatuekin. Zerbitzu horiek gutxienez urtean behin bisitatzen dute ustiatagia.

Baimendutako produktuei emanen zaie lehentasuna tratamendurako, honako lehentasun-hurrenkera honekin bat:

- o Landare, animalia edo mineralen substantziak diluzio homeopatikoko batean;
- o Efektu anestesikorik ez duten landareak eta haien estraktuak eta
- o oligoelementuak, metalak, immunoestimulatuak naturalak, probiotiko baimenduak eta gisako substantziak.

Beharrezkoa denean, prebentzio-neurriek funtzionatzen ez badute, tratamenduak egiten ahalko dira sintesi kimikoko produktu alopaticoen eta parasitoen aurkakoekin, albaitari baten ardurapean. Halakoetan, bikoiztu egin beharko da animalia edo haren produktu eratorriak kontsumitzeko itxaronaldia, ekologiko gisa merkaturatu ahal izateko; zehaztu ez bada, epealdi hori 48 ordukoa izan da.

Parasitoen aurkako tratamenduak espezieen arabera mugatuko dira, Estatu kideek aplikatutako nahitaezko kontrol-programak izan ezik. Ektoparasitoen kontrol biologikorako, arrain garbitzaileak erabiltzeari emanen zaio lehentasuna, bai eta ur geza, itsasoko ura eta sodio kloruroko disoluzioak erabiltzeari ere.

Txertaketak eta nahitaezko desagerrarazte programak izan ezik, animalia batek edo animalia talde batek 2tik gora tratamendu txanda jasotzen baditu sintesi kimikoko albaitaritzaren sendagai alopaticoen edo antibiotikoen 12 hilabeteko epean (edo tratamendu bat baino gehiago, haien bizi-ziklo produktiboa urtebetetik beherakoa bada), animaliak edo horietatik eratorritako produktuak ezin izan dira produktu ekologiko gisa saldu.

Behar diren garbiketa neurriak hartu beharko dituzu, bai eta haien eraginkortasuna ebaluatu ere, ekoizpen ekologikoak eta konbentzionalak ez nahasteko eta ez kutsatzeko biltegiaturik dauden bitartean.

Ekipamendua eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko animaliak ez daudenean, honako produktu hauek erabiltzen ahalko dira 23/12/31ra arte:

- Ozonoa

- Kaltzio hipokloritua
- Sodio hipokloritua
- Kaltzio hidroxidoa
- Soda kaustikoa
- Kaltzio oxidoa
- Etanola
- Potasio permanganatoa
- Te-hazien opila, kamelia-hazi naturalez egina (erabilera otarrainxkak ekoiztera dago mugatua)
- Azido hipoklorosoak sortzen duten potasio peroxomonosulfatoaren eta sodio kloruroaren nahasketak.

Ekipamendua eta instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko animaliak ez daudenean edo bertan daudenean, honako produktu hauek erabiltzen ahalko dira:

- Kareharrizko harria (kaltzio karbonatoa) pH-a kontrolatzeko
- pH-a zuzentzeko dolomita (erabilera otarrainxka ekoiztera dago mugatua)
- Sodio kloruroa
- Hidrogeno peroxidoa
- Sodio perkarbonatoa
- Azido organikoak (azido azetikoak, azido laktikoak, azido zitrikoak)
- Azido hezea, azido peroxiazetikoak, azido perazetikoak eta peroktanoikoak, yodoforoak (azken hori arrautzarik badago bakarrik).

EKOIZPENEN MUGIMENDUAK ETA DERRIGORREZKO ERREGISTROAK

Beste unitate ekologiko batzuetara bidaltzen dituzun animalia edo produktu guztiak behar bezala identifikatu beharko dira, arauzko baldintzen arabera. Horretarako, agiri osagarriak aurkeztu beharko dira, eta horien kopia bat gorde eta beste bat eman beharko diozu hartzaileari. Albaranak edo fakturak agiri osagarritzat jotzen ahalko dira, derrigorrezkoa den informazioa jasotzen badute (NNPEK identifikazioa produktuaren ziurtapen-emaile gisa, "eko" produktuaren edo konbertsio bidean den produktuaren identifikazioa, produktuaren igorlearen eta hartzailearen identifikazioa, eta produktuaren trazabilitatea bermatzeko behar den informazio guztia).

Derrigorrezkoak diren erregistroak egin eta behar diren frogagiriak mantendu beharko dituzu araua betetzen dela bermatzeko. NNPEKek erregistro-ereduak jarriko ditu zure eskura, halakorik izan ezean erabil ditzazun. Derrigorrezko erregistroen artean daude animalien sarrerak eta irteerak, ihes egindako arrainak, elikadura, elikadura, tratamenduak eta albaitaritzazaintzak, eta erreklamazio-orriak. Erregistroak eguneraturik eta betarik izan beharko dituzu, haietan beharrezkoa den informazioarekin.

ZIURTAPENAREN PROZESUA eta ZIURTAPEN BETEBEHARRAK

Honatz ziurtapenaren prozesua:

1. Inskribatze-eskabidearen formulazioa aurkeztu behar da NNPEK kontseiluan, behar bezala betea eta sinatua, erantsi beharreko agiriekin batera. Galdetegia gure webgunean dago eskura: www.cpaen.org.
2. Ziurtapen Akordioaren sinadura. Aurrekontua prestatu eta helaraziko zaizu, eskaera egin denean indarrean diren tasen arabera. Ziurtapen eskabidea ez da betetzat eta onartutzat joko, Ziurtapen Akordioa sinatua aurkezten ez bada.
3. NNPEKek hasierako auditoretza egingen du zure eskabidea ebaluatzeko. Ebaluazioa aldekoa ez bada, zuzenketa-ekintzak hartu eta ezartzen ahalko dituzu zehazten den epean.

4. NNPEK kontseiluak zure eskabidearen aldeko edo kontrako ebazpena jakinaraziko dizu, behin Ziurtapen Batzordeak zure espedienteaz aztertu ondoren. Erabakia hartzeko epea gehienez 6 hilabetekoa izanen da, eskabidea betetzen duzuetik aurrera.
 - Kontrako ebazpena ematen bada, 6 hilabeteko epea izanen duzu behar diren zuzenketak egiteko, Batzordeak zure eskabidea berriz ere baloratu dezan. Epe horretan zuzenketarik egiten ez baduzu, ulertuko da ez diozula prozesuari segidarik eman nahi, eta espedienteaz itxiko da.
 - Aldeko ebazpena ematen bada, NNPEK kontseiluak ziurtagiria bidaliko dizu. Ziurtagiriak 24 hilabeteko indarraldia izanen du, aipatzen diren irismenentarako betiere.

Behin operadore ekologiko gisa inskribaturik, zure ziurtapenaren irismenaren zabalpena eskatzen ahalko duzu, horretarako NNPEKek bere webgunean eskura jarriko dizkizun galdetegiak erabiliz (www.cpaen.org). Irismen berria ziurtatzeko prozesua hasierako ziurtapenerako berbera izanen da.

Zure ziurtapen eskariak kontrako erabakia jasotzen badute, apelazio idatzia egiten ahalko duzu Alderdien Batzordean, 15 eguneko epean jakinarazpena jasotzen duzuetik aitzina. NNPEKek, zure apelazioa jaso izana adierazteaz gain, haren emaitzaren jakinarazpen idatzia egingen dizu. Hala ere, apelazioan bestelako dokumentazio teknikorik aurkezten baduzu, Ziurtapen Batzordeak berak ebatziko du, lehen erabakia hartzean eskura izan ez zuen dokumentazio berria delako. Ziurtapen Batzordeak apelazioa ebatzen badu dokumentazio berria duelako, eta kontrako ebazpena bada, jakinaraziko zaizu oraindik ere baduzula Alderdien Batzordean apelazioa egiteko aukera.

NNPEKek, halaber, jakinarazten dizu keak edo erreklamazioak egiten ahalko dituzula emandako zerbitzuagatik edota kontrol eta ziurtatze jarduerarekin zerikusia duten beste arrazoiz batzuegatik. NNPEKek huraxe jaso izana adieraziko dizu eta hura bere prozedurekin bat kudeatzeko konpromisoa hartuko du, ekintza egokiak eginez eta dokumentatuz; emanen zaizun erantzun idatzian jakinaraziko zaizu zer ekintza egin litezkeen kasu bakoitzean.

Behin ziurtapena emanik, NNPEKek kontrol auditoretzak egingen ditu, arauak ezarritako maiztasun minimoarekin, eta arriskuen ebaluazioa zehaztuko du, ziurtapen akordioa mantentzen den bitartean eta Kontseiluan baja hartzen ez duzun bitartean. Kontrol bisualaz eta dokumentalaz gain, NNPEKek laginak hartzen ahalko ditu zure ustiatzean. Analisisiek araua urratu ahal izan dela adierazten badute, NNPEKek bigarren analisi bat (adituaren txostena) jasotzeko duzun eskubideaz informatu eta jakinaraziko dizu eta, baieztatzen bada, dagokion ikerketa egingen du.

NNPEKek jakinarazten dizu laginen analisisak laborategiei azpikontratatzeko dizkiela. Hortaz, lagina hartzen bada, kontrol-auditoretzan bertan kontra egiten ahalko diozu lagin hori laborategi jakin batek edo batzuek aztertzeari, eta auditoreari zure jarrera justifikatu beharko diozu.

Kontrolen emaitzen arabera, NNPEKek urtero berrituko du zure ziurtapena, edo ziurtapena kendu edo bertan behera utziko du, dela orokorrean, dela ekoizpen sorta edo elementu zehatzetan.

Zuzenketa/konponketa ekintzak egin beharko dituzu zure jarduera ziurtatzen atzematen diren urraketak moldatzeko, kasu bakoitzerako ezartzen diren epeen barnean. Urraketa horiek moldatzen ez badira, NNPEKek jakinaraziko dizu zer ekintza egin eta hilabeteko epea izanen duzu moldatu ahal izateko. Urraketen arabera, hona hemen zer neurri har daitezkeen:

- Operadoreak zuzenketa-plan bat aurkeztea.
- Ziurtapena kentzea ekoizpen sorta bati edota unitateko elementuei (kalifikazioa kentzea lursailei edo animaliei), edo erreferentzia ziurtatuei.
- Aurreko neurri batzuk edo antzeko batzuk batera.
- Ziurtagiria bertan behera uztea (ekoizpen metodo ekologikoari dagozkion terminoen erabilera debekatzea epealdi jakin baterako).
- Ziurtagiria kentzea (operadorearen baja).

Neurriak ezarriko dira, urratu den betebeharraren garrantziaren arabera, eta jarduera irregularren eitearekin eta inguruabar zehatzekin. Haien berri ematean, NNPEKek jakinaraziko dizu apelazioa egiteko eskubidea duzula.

Ziurtagiria bertan behera uzten bada, neurri hori jakinarazten denetik 6 hilabete baino gehiago igarotzen badira hura eragin duten arrazoiei konponbiderik eman gabe, operadoreari baja ematen ahalko zaio. Operadoreari baja ematea erabakitzen bada, ezin izanen da berriro operadore gisa alta eman 12 hilabeteko epean.

NNPEK kontseiluarekin sinatzen duzun ziurtapen-akordioak bi alderdien eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak jasoko ditu. Hala eskatuz gero, NNPEKek zure eskubideak, betebeharrak eta konpromisoak jarriko ditu zure eskura, bai eta NNPEKen konpromisoak eta erantzukizunak ere.

Indarrean diren tasen, kontsulten edo argibideen berri izateko, jarri gurekin harremanetan 948-178332 telefonoan.

Kontrol eta Ziurtatze Saila
CPAEN-NNPEK